

Terminologia eta itzulpengintza

Juan Carlos Sager

Institute of Science and Technology. University of Manchester

Euskaratzailea: Axun Aierbe Mendizabal (EHUko irakaslea)

Itzulpengintza-ikastaro batean terminologia aztertzea beharrezkoa da eta baita beste alderdi teoriko batzuk aztertzea ere, hala nola, hizkuntzarteko komunikazioa, baliokidetzak, fraseologia, etab.; izan ere, itzulpengintza-ren prozesua bera desmitifikatzen eta azaltzen laguntzen du, profesionalak sarri intuizioa erabiliz egiten baitute. Itzultzaileentzako ikastaro batean, terminologiak terminoen eta hitzen artean bereizten lagundu behar du, itzulpen-tekniken barruan bereiz erabiltzen ikasi ahal izateko. Gainera, ikasleak hizkuntzaren izaera konplexuaz sentiberago izateko eta itzultzeko hartu beharreko erabakiak zergatik hartzen dituzten ulertzeko ere balio dezake.

The study of terminology is necessary in a translation course, and so is the study of some other theoretical aspects, such as interlingual communication, equivalence types, phraseology, etc, as it is useful to demythologise and to explain the translation process, in which professionals often work intuitively. In a course for translators, terminology has the aim of making the distinction between terms and words, so that it is learnt how to deal with them separately in terms of translation techniques. Furthermore it can be useful to make students aware of the complexity of language and to understand why they make certain necessary decisions when translating.

0. Sarrera. Itzulpengintza aztertu eta ikastea*

Unibertsitateko ikasketetan itzulpengintza —egiteko praktikoa funtsean— irakastea bidezkoa da soil-soilik, eginkizun hori irakastearekin batera, azterketa eta ikerketa gauzatzen badira. Ikerketa-giroa da unibertsitateko prestakuntza eta merkataritza-elkargoetan edo elkargo teknikoetan eman daitezkeen ikastaroak bereizten dituen; izan ere, azken hauetan, teknikak eta metodoek hartzen dute garrantzi berezia.

Praktikaren eta ikerketaren arteko orekaren arabera neurtzen da lanbiderako trebakuntzaren arrakasta. Garrantzitsua da lanbidean jardutea nahiz ikaslearentzat nahiz irakaslearentzat; ikerketa beharrezkoa da gaia garatzeko, eta etorkizunean profesional izango denari malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna emateko, gaur egungoa bezalako lan-merkatu aldakorrean inoiz baino beharrezkoago baitira. Azkenik, zientzia-ikerketa eta ikerketa aplikatua arnas iturri dira bai irakaslearentzat bai ikaslearentzat, ideia berrietarako bide direlako eta irakaskuntza aspergarri ez gertatzeko balio dutelako.

Baina ikerketaren bideak ez dira zuzenak ezta errazak ere. Errepikakorrek izan daitezke eta huts egin dezakete. Onartu behar da, halaber, gazteek aurreko belaunaldiaren zenbait esperimentu berregin behar dituztela eta zaharren jakinduriari desafio egin behar diotela. Zaharrek arriskua dute ahanzteko eta errepikatzeke.

Halarik ere, egiaztatuta dago orobat ez dela ontzat hartzen itzulpengintza-ikastaroetan, San Jeronimorengandik hasi eta Steiner-enganainoko edo Walter Benjamin-enganainoko itzulpengintzaren teoriari guztiz aurka egitea. Ikerketaren emaitzak oso gutxitan aipatzen dira ikastaroetan, askok teoria-mailako eztabaida balio praktikorik gabekotzat jotzen dutelako, eta teoria eta praktika ez direlako elkarrekin uztartzen. Alabaina, itzulpengintzaren zenbait alderdi ikertzeak —hala nola, hizkuntzen arteko komunikazioa, irakurgaiak ulertzea, baliokidetzeta-motak edo fraseologia eta terminologia—, benetan ulertu gabe, hainbesteko konfiantzaz gauzatzen dugun prozesu arrotz hau desmitifikatzen eta azaltzen laguntzen du.

1. Terminologia eta itzulpengintza

1.1. Terminologia itzultzaileen trebakuntzan

Itzulpengintza edo interpretazioa bezain lanbide konplexuetarako trebakuntza-ikastaroak eskaintzen dituzten unibertsitateek etengabe berrikusi behar dituzte beren programak, lan-munduaren aldakuntzei egokitzeko. Bi mila urte inguruko jardunaren ondoren erabaki zen itzultzaile eta interpreteentzako ikastaroak jartzea. Ikastaroak hasi zirenean, itzulpengintzarako lagungarri diren beste lanbide batzuekiko lotura egin beharra ere onartu zen. Terminologiak ere milaka urteko

* Itzulpen-lan hau 2002an Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campusak antolatutako Felix Ugarte X. Itzulpen-lehiaketan saritua izan zen. Eskerrak bihurtu nahi nizkioke epaimahaiari, saria dela bide itzulpena argitara emateko atea zabaldu zaidalako, eta baita Juan Carlos Odriozolari ere, argitalpena prestatzerakoan eginiko ohar baliotsuengatik. Jatorrizko lanaren erreferentzia honako hau da: "Terminología y traducción" in M.Teresa Cabré & Cristina Gelpí (arg.) (2000): *Cicle de Conferències i Seminaris 97-98: Lèxic, corpus i diccionaris*, Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra, Bartzelona, 123-137.

historia du, baina itzulpengintza horretaz arduratzen hasiberri samarra da. Terminologia izeneko ikastaroak 1945aren ondoren hasi ziren, hain zuzen, teknika-arloko jakintzen trukea areagotu zenean. Etengabea da terminologia itzulpengintzaren beharretara egokitzea, eta egungo teknologiaren eta lanbidearen beharrak direla bide aldatu egingo da.

Itzulpengintzako ikasleei terminologia nola irakatsi behar zaien ikusteko, uste dut baliagarria dela bi diziplinetako lan-metodoak erkatzea.

1.2. Itzulpengintza eta terminologia

Lehenik, adierazi behar da itzulpengintzak eta terminoak identifikatu, prozesatu eta biltzeko jarduera-multzoek bi planotan, hau da, hizkuntzalaritzarenean eta kognizioarenean, funtzionatzen dutela eta aurkako ikuspegiak dituztela.

Ezberdintasun hori azaldu ahal izateko sinplifikazio batera joko dut, aski egokia delakoan: itzultzaileek hizkuntzaren gertakariekin edo egintzekin egiten dute lan, hots, Saussure-k *hizketa* (“parole”) deiturikoarekin; aldiz, terminologoez hasieran hizkuntzaren gertaerak erabil baditzaizkete ere, beren helburua hizkuntzaren egitateak erregistratzea da, Saussure-k *hizkuntza* (“langue”) deitua, horiek baitira jakintzaren adierazgarri. Azal dezagun ezberdintasun hori xehekiago.

Lexikoari buruzko azterketa guztiak analitikoak dira, kontzeptuak eta hizkuntza-gauzatzeak hartzen dituzte testuetatik, ondoren berbaldiaren testuingurutik bakandurik deskribatu ahal izateko. Itzulpengintza, bestalde, prozesu dinamiko eta sortzailea da eta testu-oinarri batetik beste oinarri baterako mugimenduaz arduratzen da: ekoizpena du ikuspegi eta ez deskribapena. Horregatik, itzulpengintza funtsean sintesi-prozesua da.

Lehenik, lexikoaren aztertzailak —dokumentalistak, hiztegiak, terminografoak eta abar biltzen dituen hitza erabiliz— beren azterketen emaitzak hiztegietan, glosarioetan eta abarretan dokumentatzen dituzte; beste era batera esanda, oso dokumentu-mota ezberdinak dira eta, gainera, itzultzeko aproposak ez diren dokumentu-mota apurretakoak. Ikuspegi analitiko hori aplikatu dakieke beste egoera batzuei ere, hain zuzen, terminologoez hizkuntza-plangintzan laguntzen duten kasuetan, esaterako, estandarizazio-lanetan. Oso gutxitan egiten dute lan sintesi-eran, hori soil-soilik gertatzen baita terminologia-arloko neologismoak eratzen laguntzen dutenean; eta, hala ere, sintesia hitz baten lexiko-unitatera edo sintagma batera mugatzen da, terminologoez ez baitira aritzen itzultzaileek baliatzen dituzten unitate luzeagoekin. Horregatik, ez da berez ohikoa bi lanbideen artean lankidetzan aritzea, eta gogo-zalutasun aski handia eta diziplina eskatzen ditu horrek.

Bigarren aldean jardueraren mailan ikus daiteke. Itzultzeko jarduera konplexuaren zati bat kultura bateko unitate esanahidunak beste kultura batekoekin baliokidetzeko prozedura da, hain zuzen, komunikazio-egoeraren eta berbaldi-motaren araberrako hizkuntza-adierazpidea bilatu aurretik egin beharrekoa. Unitate horiek ez dira interesgarri terminologiarako, idazle batek une jakin batean ipinitakoak direlako. Ezberdintasun hori azaldu ahal izateko, *itzulpen-unitateez* —kontzeptu eztabaidatu samarra— mintzo gara eta *fraseologiako unitateekin* —kontzeptu hau

ere argi ez dagoen arren— bat etor daitezke edo ez, eta, halaber, zehazki samar *terminologiako eta lexikografiako unitate* gisara defini ditzakegunez mintza gaitzke.

Ezberdintasun hori adierazteko beste era bat izan daiteke, esatea itzultzaileek terminoekin lan egiten dutela berbaldiaren testuinguruan, eta terminologoez, berriz, terminoak testuingurutik bakandu egiten dituztela, hau da, testuingurutik atera eta, ondoren, terminoak beren kontzeptuekin uztartzen dituztela. Baliokidetza terminoaren eta kontzeptuaren mailan egiten da, ez da egiten testu-unitateen artean.

Bada hirugarren ezberdintasun bat ere, izaera psikologikoa duena. Irakurle eta idazle gisara, itzulpen-unitateen arteko baliokidetza egitean, itzultzaileek intuizio handiz jarduten dute, beren lanaren osagai sortailea baita. Gaiaz eta bi hizkuntzetako adierazpideez dakitenaren arabera izango da, unitate esanahidunak noraino identifika ditzaketen eta baliokideak zein diren “jakitea”, besterik gabe, edo hiztegiak erabili behar dituzten. Esanahi bat edo adierazpide bat bilatu behar dutenean soilik erabili behar dituzte itzultzaileek terminologoen eta hiztegegileen teknikak.

Lexikoaren aztertzaileak, bestalde, ezin dira fidatu inoiz beren intuizioaz. Terminologia edo lexikografia elebiduna edo eleaniztuna denean soilik izan daiteke itzulpengintzaren xedeez zerbait jakiteko beharra eta, itzultzaileen kasuan, berriz, lanaren emaitza onargarria izateko soilik. Itzultzaileak dira terminologiaz jakin behar dutenak eta ez terminologoak.

Itzultzaileek hiztegi teknikoaren baliokideak ikertzen dituzten neurrian, terminologoen era analitikoan egiten dute lan eta egiten jakin ahal izateko sintesi-lana analisi-lanarekin bateratzen ikasi behar dute. Itzultzaileentzako terminologia-ikastaro bereziak emateko arrazoiaren zati bat hauxe da: itzultzaileei trebezia horien kontzientzia harraraztea eta terminologoen ikuspegiarekiko ezberdinak diren ikuspuntuak ematea.

Lehen zati honi amaiera emateko, berriro adierazi nahi dut askotan esan dudana: itzulpengintza erabakien prozesu bat da. Hori nabarmen egiazta daiteke hitzak hautatzerakoan. Guztiok uste dugu hitz asko dakizkigula, esanahi eta guzti; uste dugu berbaldiaren testuinguruan identifika ditzakegula, eta zalantza dugunean soilik bilatzen ditugula hiztegian. Baina, zerk ziurtatu ahal digu itzultzen ditugun hitzez ulertzen dugunaz fida gintezkeela? Nola ziurta genezake gure itzulpenak irakurtzen dituztenek guk nahi genukeen eran ulertzea? Terminologia aztertzeak lexiko-unitate mota bat eta unitate horiek eratu eta erabiltzeko mekanismoak ulertzeko sarbidea ematen digu. Jomuga xume hori aski arrazoi dela uste dut itzultzaileentzako trebakuntza-programa batean terminologia-ikastaro bat emateko. Bestelako onurarik ez badu ere, itzultzaileei beren lanbidearen beste ikuspegi bat eman-go die behintzat, eta beren lanean intuizioari leku txikiagoa eta gogoetari handiagoa egitera eramango ditu.

2. Terminologia berria: ohiko terminologiaren hutsuneak

Laburkiro aurkeztu nahi nuke orain, itzultzaileen trebakuntzarako garrantzitsuen deritzodan terminologiaren ikuspegia. Egundaino itzultzaileentzako liburuetan eta ikastaro askotan terminologiaren oinarri gisara aurkeztu dena, kontzeptu-egituren eta hastapenen teoria erraztua da edo horren aldagaiak izan dira, eta gehienetan arau-emaileak izaten dira hastapen horiek, alegia, denaz izan ordez, izan beharko lukeenaz. «Hastapen» horiek, Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundea den ISOren terminologiari buruzko dokumentuetan ikus dezakegun bezala, termino monosemikoaren ikuspegi idealizatu —eta gainera, gezurrezko— batean oinarritzen dira, terminoen eta kontzeptuen artean adiera bakarreko erreferentziak baleude bezala, eta kontzeptuen egitura zurrunetan oinarritzen dira, botanika, zoologia eta geologia bezalako behaketazko zientzia fisikoetan ere horrelakorik ez dagoen arren. Hastapen horien oinarri teorikoa ez da behaketa, fantasia baizik. Kontrakoa begi-bistan egon arren, kontzeptuen egitura estatikoa dela eta terminoen multzoa eta hizkuntza askotako balioak daudela besterik ez da onartzen. Aitzitik, beha daitezkeen hizkuntzaren egitate kognitiboetan oinarritzen bagara, terminoek eta beren kontzeptuek multzo dinamikoa eratzen dutela edirenen dugu, eta multzo horrek komunikazioan oso egiteko berezia eta garrantzitsua duela eta, hortaz, baita itzuli beharreko testuetan ere. Egitate horiek oinarri izan behar dute terminoen portaerari eta egitekoari buruzko teoria eraikitzeko.

Alain Rey-ren saiakeretan etorri handia idoro dut; eta bere testu bat goi-buru gisara erabil dezakegu. Honela dio:

Terminologiaren berriazko ekarpena hauxe da: hizkuntzalaritza lexikalaren eta lexikologiaren lorpenak bateratzea jakintzaren soziologiarekin eta hizkuntza erabiltzearekin, jakintza sortzeko, finkatzeko eta berbaldiaren bidez transmititzeko (Alain Rey, 1995: 8).

Argi eta garbi esan behar da terminologia aztertzearen lehen eta azken xedea terminoak direla. Jakinduria sailkatzeko balio duten banakako izaki gisara aztertu behar dira terminoak eta baita komunikazioan duten rolaren arabera, edo berbaldiaren zati gisara ere. Bi erabilera horiek oso hertsiki loturik daudenez eta berbaldian erabiltzea jakintzaren sailkapenean erabiltzea baino lehenagokoa denez, terminoak beste ezer baino lehen, hizkuntza-gertakari gisara aztertu behar dira. Gainera, itzulpengintzak terminoekin egiten du topo berbaldian, hizkuntza-izaki gisara, eta ikuspegi horretatik aztertu behar dira itzultzaileentzako ikastaro batean.

3. Mintzairaren eginkizunak eta ezaugarriak

Terminologia hizkuntzaren hiztegi orokorretik bereizteko dugun kezka jatorria ideien historiako bi joera nagusien arteko funtsezko tirabiratik eta bi joera horiek hizkuntzarekiko hartzen duten jarreratik dator.

Joera horietako bat da, hizkuntzak ohartuki sortzeko aukera onartzea eta gizarte bakoitzeko jakintzaren egituran txertatzea. Mendeen joanean, Platon, Descartes, Locke, Leibniz eta Frege bezalako filosofoek hizkuntzarekiko interesa erakutsi zuten, pentsamendua antolatzeako bitarteko gisara balio duen neurrian. Ikuspegi horretatik, jakintza eta gizartea antolatzeako tresna da hizkuntza. Ondo-

rioz, hizkuntza-plangintza egin daiteke, zehatza, ekonomikoa eta komunikazio-egoera bakoitzerako egokia izan dadin. Beste ikuspegia, Berkeley, Austin, Wittgenstein eta Ryle bezalako pentsalariek sustatua, hizkuntza naturalaren behaketan datza, edo hobeki esanda, banakako hizkuntzen behaketan, hain zuzen, hizkuntzen izaera konplexua ulertu ahal izateko. Jarrera horrek hizkuntzan ageri diren forma heterogeneoak onartzen ditu, hala nola, polisemia, sinonimia eta homonimia, beharrezko baitira eguneroko hizkeran anbiguotasuna eta ziurgabetasuna adierazteko eta pentsamendua garatzeko. Gure lehenengo xederako, tirabira hori laburbil daiteke Saussure-k hitzen *arbitraire du signe* (hautazko zeinua) deituaren eta terminoak ohartuki sortzearen artean dagoen aldea baliatuz. Hori argi ikus daiteke Linnaeus-ek, Guyton de Morveau-k eta beren garaikideek natura-zientzietarako sortutako nomenklaturetan, gaur egun, oraindik ere, balio baitute.

Lexiko-unitateak hitzen eta terminoen artean banatzeak hizkuntzaren egitekoak ulertzeko ere lagun diezaguke. Sapir-en definizioari jarraiki, badakigu hizkuntzaren izaera erreferentziazkoa, sistematikoa, borondatezkoa eta erkidea dela. Ezaugarri horiek hiztegian ageri dira bereiz; komunikazio-egoeraren behararen arabera, berbaldiak ezaugarri horietako bat edo batzuk nabarmentzen ditu, eta gainerakoen garrantzia txikiagoa da. Horrela bada, terminoak erabiltzeak alderdi erreferentziaduna eta sistematizatzailea indartzea dakar. Hitzak erabiltzeak, aldiz, hizkuntzaren izaera erkidea areagotzea dakar, bereziki zirrarak adierazteko edo sortzeko eta gizarte-harremanetarako erabiltzen denean. Terminoak soilik dituen berbaldi bat, esaterako, automobilen ordezeko piezen zerrenda bat erabat erreferentziaduna da, eta elementuen hurrenkeraren araberrako zatikako sistema bat eratzten du, edo egitekoen, prezioaren, automobil-modeloen edo alfabetoaren araberrakoa. Hitzaldi hutsal bat, gizarte-mailakoa eta erkidea eta informazio apur bat emateko dena, hitzak baliatuz egiten da eta ez terminoak erabiliz.

Komunikazioan terminoak erabiltzen ditugunean, kontuan hartzen dugu gure solaskideek badutela behar duten jakite-maila lexiko-unitate horiek termino gisara ezagutu eta ulertu ahal izateko, eta gai berezitu batekiko harremanetan jartzeko. Gure berbaldia egokitu egiten dugu terminoak eta hitzak nahasian erabiliz, gai berezitu jakin bateko terminoek izan dezakegun jakite-mailaren arabera. Terminoren bat ezezaguna zaiela ikusten dugunean edo berbaldian termino berri bat lehenengo aldiz sartu nahi dugunean, termino hori azaltzeko hitzak erabiltzen ditugu, eta parafirasira jotzen dugu, alegia, metahizkuntza erabiltzen dugu hizkera berezitu-tuko termino ezezagunak azaltzeko.

Terminoak aldaera funtzionalak direnez eta hartzen duten forma askotan hitzenaren berdin-berdina denez, gerta daiteke espezialista ez direnek hitz bat terminotzat jotzea, espezialista batentzat hala ez izanik ere; eta gerta daiteke espezialista batek terminoak erabiltzea eta hain adituak ez diren solaskideek hizkuntza orokorreko hitzak direla pentsatzea eta, ondorioz, gaizki-ulertuak sortzea eta berbaldia ez ulertzea, solaskideek gaiarekiko eta hiztegiarekiko jakite-maila ezberdina izatean. Onartu behar dugu lexiko-unitate askok hitz gisara edo termino gisara jokatzea hizlariaren eta solaskidearen hautapen- eta interpretazio-kontua izan daitekeela. Alderdi hori oso garrantzitsua da itzulpengintzarako.

Hizkuntza naturala da metahizkuntza gisara erabil daitekeen komunikazio-sistema bakarra, izan ere, terminoen ordez parafraasiak erabil daitezke. Eta bi lexiko-unitate mota horiek soilik existitzen direlako gauza daitezke espezialisten eta jende arruntaren arteko harremanak edo irakasle eta ikasleen artekoak, hots, berbaldian esku hartzen duten kideen jakite-mailan daudekeen aldeak gaindi daitezke. Terminoak eta hitzak batera erabiltzean, hizkera berezituak adierazpide berezituko mailak eratzen dituzte, eta irakaskuntzarako beharrezko diren hizkuntza arrunteko hitzak erabiltzeko bidea zabalik geratzen da. Jakite-mailako aldea gerta daiteke hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituzten gizarteen artean ere, eta horrelakoetan itzultzaileak ezin du aurkitu termino baliokidea xede-hizkuntzan.

Esperientzia eta jakinduria banantzeko eta nolabait antolatzeko terminoak erabiltzen ditugunean, errealitate horri ezartzen diogun ordena gure xedeen arabera da, baina eragina dute, orobat, errealitatea antolatzeko hizkuntza-erkidegoek asmatu dituzten sistema osagarriek ere. Errealitatea hizkuntza-sistema batera itzultzerakoan, hizkuntzak bere sistemaren arauak ezartzen ditu.

4. Terminoen eginkizuna mintzairan

Terminoek rol garrantzitsua dute komunikatzeko eta sailkatzeko hizkuntza-erabileretan, baina garrantzi txikiagoa dute sentimenduak adierazteko eta gizarte-harremanetarako. Komunikazio berezitua eraginkorragoa da solaskideek, alde aurretik ados jarririk, kontzeptu eta izendapen berberak erabiltzen badituzte. Sailkapen-funtzioari dagokionez, kontzeptu bat termino baten bidez izendatzeak jakinduria sendotzen du, forma idatzi jakin batean erregistra dadin eta erreferentzia-puntu gisara balio dezan, berbaldian erabiltzerakoan. Hizkuntza naturalaren baliabideak aski edo egoki ez direnean, hizkuntza artifizialak sortzen dira, hain zuzen ere, zurrun definitutako termino-jokoak. Komunikazio-funtzioari dagokionez, terminoek adierazpide ekonomikoa dakarte, jakintzaren elementu konplexuak termino bakar baten bidez adierazten dituztelako, oso parafraasi luzeak erabili orde; gainera, aldi berean, terminoak zehatzagoak dira esanahi aldetiko interpretazio gutxiago onartzen baitituzte. Askotan, gainera, zenbait talde profesionaletan termino-multzo berezituak sortzen dira, hau da, lanbideetako argotak, sozioterminologia berriak aztertzen dituenak.

Zientzia edo eskulangintza horietako edozeinetan, soil-soilik termino dira egitateetan edo eztabaidaezinezko jakintzetan oinarritzen diren lexiko-unitateak edo bestelako sinboloak, hala nola, kimikako nomenklaturak. Esanahiak definizio bidez finkaturik daude (betiko balira bezala), eta, horrela, hizkuntza artifizial baten hiztegiaren zati bat osatzen du nomenklatura horrek. Ildo horretatik, edozein jakintza bermatzen du eta oinarri horren gainean gara daitezke termino berriak, aldi berean, jakintza sendotuz.

Terminoak hitzekiko ezberdinak dira funtzioaren arabera, ustez gure solaskidearen hiztegiakoa den kontzeptu berezi bat adierazteko erabiltzen direlako. Eskarmentuz dakigu hitzek esanahi iluna eta askotarikoa dutela —hedadura handikoak direla—, eta polisemia gara dezaketela. Jakin badakigu terminoek esanahi berezitua dutela, edukiera zehatzean eta hedadura hertsian nabari den moduan, eta jakintza-arlo bakar batekoak direla usu. Terminoak erabiltzerakoan, arreta

hartzen diogu erreferentziari edo denotazioari; eta konnotaziorik eta bigarren mailako esanahirik izan badezakete ere, komunikazio-balio txikiagoa dute edo ez dute halakorik.

5. Terminologiaren bilakabidea

Hizkuntzen bilakaeraren ikuspegi historikotik, uste dugu terminologia gizakiek hizkuntza naturalari berariaz gehiturikoa dela. Hizkuntza orokorreko hitzen iluntasunari eta ziurgabetasunari aurre egiteko zuzentzaile gisara asmatu zen. Lehenengo gizarteetako gizakiak beren esperientziak idatziz finkatzen eta giza esperientziaz gogoeta egiten hasi ziren orduko, hizkuntzaren erabiltzaileek hitzen jatorriaz eztabaidatzeko beharra sumatu zuten. Filosofia grekoan, Jainkoak emandako ezin azalduzko hizkuntzaren aldekoen eta komunikazio-bide arrazionalen aldekoen arteko gatazkak sustrai-sustraitik adierazten zuen hizkuntza naturalaren zehaztasun-gabeziatik eta askotariko funtzioetatik ihes egiteko bideak garatu beharra. Izakiak izendatzeko hiru kategoria asmatzeak, hau da, hitzak, izen bereziak eta terminoak asmatzeak, adierazi nahi du hizkuntzak beren kasa haz ez daitezen eginiko lehen eginahala dela. Mende batzuk geroago komunikaziorako hizkuntza artifizialak (adib., esperantoa) sortzeko hainbat ahalegin egitea ekarri zuen, eta baita jakintza (matematiketako hizkera, botanika-arloko latina, etab.) era sistematikoan finkatzeko eta sekretuak komunikatzeko ere. Horrexek azaltzen du, era berean, testu juridikoetako sintaxi bitxia (punturik gabea edo nahi ez diren interpretazioak bidera ditzaketan izenordainik gabea) eta baita sintaxiaren anbiguotasuna eta erreferentzia arruntak saihesteko erreferentzia zehatza egitea ere.

Erabat artifizialak diren hizkuntzak dokumentu normalizatuetan aurki ditzakeguenez, estatikoak izateko joera dute hizkuntza horiek, eta ez dute balio kontzeptu berriak adierazteko beharretara egokitu eta jakintzaz gogoeta egiteko, baina terminologia dinamikoa denez, hizkuntza naturalarekiko loturari eusten dio. Terminologia dinamikoa izateko beharra begi-bistakoa da, etengabe aldatzen ari den giza jakintzaren garapena adierazten duelako, eta lagundu egiten diolako garapen horri; eta hiztegian dugun osagaien kopurua mugatua denez, hainbat konbinazio eginik berriro erabiltzen ahalegintzen gara, ekonomia dela bide baliagarritzat joz gero.

6. Lexikalizazio- eta terminologizazio-prozesua

Hizkuntzaren bilakaeran —haurraren hizkuntza-jabekuntzan adierazia— mugimendua ikus dezakegu banakako izenetik, hau da, izen berezitik, kategoriaren berariazko izenera, hots, terminora, eta izen orokorrera, substantibora, alegia.

Hizkuntza naturalaren garapenaren zientzia aurreko egoeran, aurkituriko izaki edo fenomeno berri bat zerbait bakan eta banako gisara ulertzen zen eta hautazko edozein zeinu baliatuz izenda zitekeen, esaterako, izen berezi batez, analogia- eta erkatze-prozesuak behin eta berriz gertatzean, izaki hori mota edo klase baten agerpen soila zela hauteman arte; hau da, beste izaki edo fenomeno batzuen ezaugarri berak zituela ohartu arte, horrek eraman baitzituen ezaugarriak kontuan harturik, taldea eratzen zutela ikustera.

Aurkikuntza hori *kontzeptualizazioa* da, izaki bat beste batzuekin harremanetan jarriz abstrakzioa iritsi garelako eta kontzeptua eratu dugulako.

Kontzeptu bat gogo-unitate bat da, gure pentsamenduak mugatua eta abstrakzio-prozesu baten ondorioa. Kontzeptuak ez dira ageri gure buruan unitate finko eta oso gisara, funtsean pentsamenduen, ekintzen eta usteen bateratzea baitira.

Une horretan, kontzeptualizatu den izakiaren izena lexikalizatu egiten da eta horrek esan nahi du izendapen berriak erreferentzia eta esanahia hartzen dituela eta erkidegoaren lexikoan txertatzen dela. Prozesu horretan izendapena alda daiteke, izena duten beste izaki batzuekiko analogiaren eraginez edo abstrakzio-prozesuan erkaketa positiboak egin direlako.

Izendapen berria aurretik existitzen diren izendapenekiko analogiaz eratua bada, hitzaren etimologia zein den interpreta daiteke. Baina, ez dago inolako ziurtasunik, izendapena erabat hautazkoa izan daitekeelako. Esaterako, ez dakigu *brush* hitza erabat hautazkoa den ala izendapena ezaugarri fisiko batetik datorren (adib., *bristles*), ala *brush* aditza dugun lehenik eta aditzak adierazten duen jardueratik eratorria den izena.

Gure oharmeneko edo esperientziako zenbait izaki bakan eta banako gisara ageri dira beti, eta, horietarako, gizarteek izen berezien sistemak eratu dituzte, konparazio batera, pertsonentzat, geografia-fenomenoetarako eta bestetarako, eta beren arauak dituzte sistema horiek.

Aurrera egin ahala, komunikazio-egoera berezituagoetan edo oharmenak edo esperientziak kategorietan sailkatzeari buruzko gogoeta berezituagoetan, kontzeptua xehekiago zehazten edo mugatzen da. Hizkuntzaren ikuspegitik hitz eratorriak eta elkartuak baliatuz egin daiteke hori; adibidez, bi sail egin ditzakegu, bata zertarakoan oinarritua (*hairbrush / toothbrush / clothes brush / paint brush*) eta bestea osagaietan oinarritua (*wirebrush / sable brush*). Metodoa gaiaren arabera edo erabiltzaileen sailkapen-xedearen arabera aukeratzen da.

Hortik aurrera bi garapen-aukera daude:

1. Lexikalizatu den unitate berria izendapen zabal bihurtzea eta antzeko izakiak izendatzeko erabiltzea komunikazio-egoera askotan: hitz substantiboa dugu.
2. Lexikalizatu den unitatea erabilera-eremu jakin baterako eta zertarako edota erreferentzia jakin baterako dugu, hots, termino bihurtu da, eta berbaldiak behar dituen aldaerak sortzen dira, hala nola, forma laburtuak, laburtzapenak, katalogoetako izendapenak, lantegietakoak, etab.

Horrela adieraz dezakegu hiru izendapen-moten bilakaera historikoa. Hiru izendapen-kategoriak ditugunetik, bakoitzak bere arauak izan ditzake eratzeko eta erabiltzeko. Esate baterako, izen bereziak eratzen dira urakanak izendatzeko, automobiletarako eta fabrikako hainbat produktutarako, milaka ale berdin-berdin egin arren. Ikerketa eta komunikazio berezitan terminoak eratzen dira jakintza-egitura baten izendapenak osatzeko.

Baina, gerta daiteke gaur egun berrikuntza teknologikoa dena bihar produktu arrunta izatea, eta, ondorioz, termino bereziak erabilera arrunteko hitz bihur daitezke. Lexikalizazio eta terminologizazio-prozesuen artean mugimendu etengabea dago. Denboraldi batean termino izatera iritsi den lexiko-unitate bat lexikaliza daiteke, baldin eta unitate horren erabilera hedatzen bada eta generiko gisara erabiltzen bada; era horretara, jakintza-arlo baten barnean zuen berezitasuna galduko luke (adib., *computer*, *brake*). Lexiko-unitate bat termino bihur daiteke era berean, generiko gisara erabili ordez arlo baterako mugatzen bada (adib., *chip* elektronika-arloan eta *window* informatika-arloan).

7. Terminologiak aztertzea

Terminologiak berariaz erabakiriko sorkuntzak direnez, barne-egitura aztertze-ko arras egokiak dira. Honako ikerketa-lan hauek erabilera praktikoko xedeetarako gomendatu nahi ditugu:

1. Arlo edo gai jakin bateko terminoetan dauden lexikoko osagaiak konbinatzeko aukerak erkatzea hizkuntza orokorreko lexikoko osagaien konbinazio-aukerekin. Horrela, jakintza-arlo baterako edo gai baterako eskura izan ditzakegun eraketa-ereduen mugak ikusi ahal izango ditugu.
2. Erabiltzaileek gai jakin baterako garrantzitsutzat jotzen dituzten kontzeptu-motak eta beren harremanak eratu eta nolako hizkuntza-forma duten aztertzea.

Bi aukera horien sintesitik terminoak izendatzeko gida bat egin daiteke, espezialistei baliagarri izan dakiekeena, kontzeptu berriak izendatzeko termino berriak eratzerakoan. Arlo jakin bateko espezialistek terminologia egokia ezaguna dute eta haientzat hiztegi arrunta bezain naturala da, hots, ez dira ohartzen beren terminologiaren izaera sistematikoaz, eta terminoak eratzen dituztenean, oro har, oharkabean eta era sistematikoan egiten dute, gaiaren ereduak eta egiturak begi-bistakoak zaizkielako. Aipaturikoa bezalako gida bat lagungarri izan daiteke zalantza izanez gero, eta arlo batean hasiberri direnei ere lagungarri gerta dakieke gaia hobeki ulertzeko. Arlo bateko jakintza eta egitekoa bereganatuz ikasten dute terminologia ikasleek. Itzultzaileei ere, beren espezialitate-arloetako terminoak eratzeko gida bat lagungarri izan dakieke.

Beste gizarte bateko hizkuntza bereganatu nahi duten espezialistak beren arlo horretako terminologiaz dakitenaren menpe egon daitezke, baina ikasterakoan onuragarri izan dakieke nor bere hizkuntzako kontzeptu-egiturak eta hizkuntza-ereduak jakitea, beste gizartekoekin erkatu ahal izateko.

Egia bada ere industria-arloko gai zientifiko eta teknologikoetako kontzeptu-egitura gehienak oso antzekoak direla, hizkuntza-sistema ezberdinen mugek eragina dute kontzeptu-egituretan, eta hori terminologian nabari da.

Ezberdintasun horiek kontzeptu-egiturekiko interferentziarik gabe aztertu ahal izateko, erkatu nahi diren bi hizkuntzak darabiltzaten gizarteetan aurrerapen-maila berean dauden gaiak aukeratzea komeni da.

8. Terminoak

Ikus dezagun orain nola aurkez daitekeen terminoa irudimenezko gure ikastaroan.

Gogoeta-motaren arabera, *termino* terminoa kontzeptu-sistema bateko atal gisara defini daiteke.

- Unitate kognitibo baten izendapen gisara, terminoak kontzeptu bat adierazten du jakintza-egituraren barnean.
- Filosofian, terminoa hitz bat besterik ez da edo, bestela, banakoa adierazten duen esaldia, edo klase bat, edo zerbait aditzera ematen duen proposiziozko osagaia izan daiteke.
- Adierazpide normalizatu gisara, erabiltzaile-talde batek bere erabileran terminoa arau dezake talde barneko komunikaziorako, eta terminoak adieraz ditzake taldeak finkatu dituen izakiak, jarduerak, ezaugarriak eta harremanak. Ildo horretatik, terminoa erakunde normalizatzaileak sortu duen hizkuntza artifizialekoa da, soil-soilik hizkuntza horretako lexikoaren zati gisara definitutako kontzeptuaren esanahia duelako.
- Formari dagokionez, terminoa substantibo gisako hizkuntza-zeinua da, edo hizkuntza edo kode artifizial bateko hizkuntza arruntaz kanpoko zeinua izan daiteke. Hizkuntzaz kanpoko zeinu gisara, terminoa zenbakien, letren edo bestelako ikurren bidez adieraz daiteke. Testu idatzian zeinu horiek substantibo gisara aztertzen dira, eta hizketan, aldiz, zeinu horiek fonologia-unitate bihurtzen dira.
- Hizkuntza-zeinu gisara, terminoa substantiboaren aldaera funtzionala da.

Terminoak lexiko-unitateak dira, hitzetatik eta izen berezietatik —hizkuntza naturaleko beste bi lexiko-unitate motetatik— ezberdinak hainbat puntutan. Hitzak kategorietan sailkatzen diren lexiko-unitateak dira, hala nola, izenak edo substantiboak, adjektiboak, aditzak, izenordainak, preposizioak, etab. Terminoek eta izen bereziek substantiboen sintaxi-funtzioa soilik izan dezakete. Hitzek esanahi ugari izan ditzakete, eta baita adieren arteko harreman ugari ere. Izen bereziek erreferentzia besterik ez dute. Terminoek esanahi mugatua dute. Terminoen esanahiak eta erreferentziak mugaturik daude ohartuki eratu direlako eta jakintza-arlo batean identifikatu diren kontzeptuak izendatzeko erabiltzen direlako.

Jakintzaren garapenean, honako prozesu hau irudika dezakegu:

Ikertzaile batek berezitutzat jotzen duen kontzeptu zientifiko edo teknikoren bat sortu duenaren baitan behar adinako gardentasunaz erazten denean, zeinu bat bilatu nahi izaten du aditzera emateko. Hasiera batean, termino bat banako baten hizkuntza pribatukoa edo idiolektokoa izan daiteke; baina, denboraren joanean egin duen aurkikuntzaren berri eman nahiko die besteei, eta horretarako gizarteari edo bizi den tokiko taldeari onargarri zaion izendapen bat bilatu behar du. Prozesu hau bataioarekiko analogiaz azal genezake. Haur jaioberriei izena jartzeko, bada tradizio oso bat gizartean arabera aldatzen dena. Bataioaren formalismoa erka

daiteke kontzeptua definitzeko formalismoarekin, normalean izendapena izaten baita aldi berean.

Horrela, hizkuntza baten erabiltzaileek gai berezitu baten terminologia bereziak (zientzia, artea, teoria, ekoizpen-prozesua, kirola, etab.) sortzen dituzte. Gai jakin baterako terminologia berezitua garatzearen emaitza, egitura sistematikoa edukitzeagatik eta ohartuki eginak izateagatik, hizkuntza orokorreko hitzetatik bereizten diren terminoen bilduma egituratua da.

Terminoak hautatu eta izendatzeko arrazoiak, jakingaiak ahalik eta zehazkien eta hitz gutxien erabiliz identifikatzeko desira da. Terminoak hautatu eta sortzeko jarduera ohartuki egin denez, helburu horiek lortzeko metodoak azter daitezke.

Horretarako sustagarri direnak honako hauetatik datoz:

- a. Lexikoko unitateak eratzeko prozesu batzuen izaera sistematikotik, hizkuntzaren izaera sailkatzailearen zati baita.
- b. Hizkuntzaren erabiltzaileek gai jakin bati ezarri nahi dioten kontzeptu-egituratik, horretarako ari baitira izendapenak sortzen.

Onar dezakegu gai guztiek dutela bilakaera etengabea, eta horrexegatik dute izendapen berrien etengabeko beharra. Aurreko terminoak eratzera eraman zituzten eragin beraren menpean dago izendapen berriak sortzea. Izendapen berrietarako mugimendu horrek eta aurreko terminoen zaharkitzeak dakarte terminologia indar dinamikoa izatea; aldiz, hiztegi arrunta egonkorragoa da.

Termino-mota ugari dira mota bateko edo besteko egonkortasuna dutenak:

- a. Deskribapen orokorretan, jarraibideetan eta testu-liburuetan, patenteen deskribapenetan edo bestelako erabilera orokorretan baliatzen diren jakingai edo jakintza-arlo bateko termino orokorrak. Termino horiek oro har bizitza aski luzea dute, jakingaia era sistematiko eta orokorrean berrikusi ezean. Mota honetako termino orokorrek erreferentzia-aldaketa jasan dezakete, hedadura zabaltzeko nahiz murrizteko. Esaterako, gaur egun *lanpara* terminoak antzinako grekoen olio-lanparak nahiz argindarrarekin dabilzan tresnak izendatzeko balio du.
- b. Lanbide bateko, industria bateko edo enpresa bateko terminoak berezituak dira. Horietako asko termino orokorragoen homonimoak dira, eta beste era batera definitzen dira, erabilera-eremuaren arabera.
- c. Produktuetarako termino berezituak, gehienetan, bizitza laburra duten izaki materialak izendatzeko erabiltzen dira, fabrikatutako objektuak izendatzen baitituzte, baina antzeko beste objektu batzuek ordezka daitezke, eta azken hauei beste izen bat ematen zaie, hain zuzen ere, ezberdintasuna nabarmentzeko.

9. Terminoen eraketa

Terminoen izendapenak edozein hizkuntza-sistematatik har daitezke, edo letrak eta zenbakiak erabiliz osa daitezke. Terminoetarako erabiltzen diren sinboloek hainbat forma grafiko har ditzakete. Termino gehienek hizkuntza-forma jakin bat hartzen dute hizkuntzaren tradizioan, eta hizkuntza horren morfologia-ezaugarriak (eratorbidea, inflexioa...) bereganatzen dituzte.

Hizkuntza-ikuspegi hutsetik begiratuta, termino baten forma lexiko-unitate bat da, eta hiztegiko osagai bat edo batzuk ditu.

Termino konplexuak sintagmez eraturiko lexikoko osagaien sail terminologizatuak (terminoak eta / edo hitzak) dira, eta kontzeptua izendatzen dute. Beste termino batzuetarik abiaturik eratzen dira prozesu logikoak baliatuz, hala nola, hitz-elkarketa, mugaketa, kontzeptuen disjuntzioa eta juntadura, etab. (A kontzeptua + B kontzeptua = C kontzeptua, AB edo BA terminoen bidez adierazia).

Termino konplexuagoak eratzen dira, kontzeptu konplexuak kontzeptu bakunekin edo beste kontzeptu konplexu batzuekin batera ageri direnean. Kasu guztietan, tartean dauden kontzeptu guztien arteko harremanaren izaera erabakigarria da termino berriaren izaera zehazteko. Esaterako, izaera materiala duen kontzeptu bat, jarduera edo prozesua adierazteko (josteko makina); beste kontzeptu konplexu batek muga diezaioke jardueraren helmena material berezitu bati (olio-pintura), edo material jakin baterako erabiltzen den tresna adieraz dezake (hotzeko zizela, burdina hotzean ebakitzeko zizela). Termino konplexuek duten barne-egiturak sistematikotasunera garamatza. Egitura hori azter daiteke kontzeptuak ulertzeko eta kontzeptuak izendatzeko teknika berriak geureganatzeko.

10. Itzultzaileentzako ondorioak

Itzultzaileek, idazlari teknikoek eta beste hizkuntza-aholkulari batzuek etekina atera dezakete azterketa hauetatik era bat baino gehiagotan.

Beste hizkuntza batean gai jakin baten terminologia ikasiz, sistema arrazoitu eta egituratu gisara, honako hauek ikas ditzakete:

- a) jakingaiari buruzko ezagutza bereganatzen dute bi hizkuntzetan aldi berean,
- b) hiztegieta eskaintzen zaizkien terminoak era kritikoan balioesteko tresnak bereganatzen dituzte, eta
- c) kontzeptu tekniko baterako izendapen berriren bat proposatu behar duten ohiz kanpoko kasuren baterako irizpideak bereganatzen dituzte.

Gutxien-gutxienez, terminologia-ikastaro on batek itzultzaileei honetarako bide ematen die:

1. terminoen eta hitzen artean bereizteko, eta baita aditz edo adjektibo gisara gauzatzen diren jakiteko ere, eta
2. itzulpengintza-tekniketan bereiz aztertzen jakiteko.

Horrezaz gain, oro har, balio dezake hizkuntzaren izaera konplexuaz sentiberago izateko eta itzultzeko hartu behar dituzten erabakiak zergatik hartzen dituzten hobeki ulertzeko.

Azken hitza

Terminologiak lexikologia eta epistemologiarekiko ezaugarri ezberdinak ditu, eta fenomeno gisara aztertzeko arrazoia Alain Rey-k eman zuen orain hogei urte inguru, honelaxe:

Terminologia-sistema batek, kontzeptu-sistema koherente bati badagokio ere, ezin ditu erakutsi bere barne-harreman guztiak, terminologia epistemologiarekiko autonomia baita. Terminologia-sistema batek, hizkuntza arrunteko hautazko hitzez osaturik badago ere, kontzeptu-sistema bat adierazten du, eta hori adierazteko soilik existitzen bada, terminologia autonomia da hizkuntzalaritzarekiko (Alain Rey, *Essays on Terminology*, itzultzailea: J.C. Sager. Amsterdam: John Benjamins, 1995: 46).

Bartzelonan, 1998ko maiatzaren 13an.